

Homeopatia, susmopean

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Sekuentzia honetan, ariketa hauek egin ditzakezu:

- Audioa entzun eta laburpenik egokiena aukeratu.
- Lotu hitzak bere definizioekin. - Osatu testua, zerrendako hitzak hutsuneetan jarritz.
- Gai honi buruz duzun esperientzia eta inpresioak komentatu.



1- Laburpen egokiena aukeratu

Entzun audioa eta aukeratu laburpenik egokiena.

Hauetako zein testuk laburtzen du ondoena audioaren mezua?

- Australian egin duten ikerketa baten arabera, homeopatiaren sendatzeko gaitasuna ez da da plazebo batena baino handiagoa.
- Australian egin duten ikerketa baten arabera, homeopatia ez da eraginkorra gaixotasun batzuk sendatzeko, baina beste batzuetarako bai.
- Australian egin duten ikerketa baten arabera, homeopatia ez da eraginkorra, baina kaltegarria ere ez, segun pazientea nola dagoen.

2- Audioko lexikoa

Hemen duzu audioko gaiarekin lotutako lexikoa. Lotu hitzak definizioekin, definizioak dagokien hitzen ondora jaitsiz.

| | |
|------------|--|
| agindu | sendatzeko bidea |
| arriku | zerbait gaizki ateratzeko aukera handia |
| eraginkor | medikuak pazienteari zer egin behar duen esatea |
| gaixotasun | gaixotasunak zaintzea eta sendatzea helburua duen jakintza |
| medikuntza | espero den ondorioa lortzen duena. |
| tratamendu | osun-egoera hondatzea |

3- Testua osatu

Hemen duzu audioko testua, baina hitz batzuk falta dira. Osatu testua goiko hitzak hutsuneetan jarriz.

Arriskutsua / agintzen / eraginkortasuna / tratamenduen / arrisku larrian / eraginkorrak / hiesa / medikuntza / gaixotasunetan / eragindako

ANA GALARRAGA. Australiako Osasun Sailak agindutako ikerketa batean, homeopatiaren _____1_____ aztertu dute 68 _____2_____. Eta ondorioztatu dute bakar batean ere ez dela homeopatia plazeboa baino eraginkorragoa. Osasun Sailak _____3_____ alternatibotzat du homeopatia.

Ba ikerketan halako _____4_____ eraginkortasuna aztertu dute. 107 ikerketa hartu dituzte aintzat eta guztira 68 gaitz azaltzen dira, tartean artritis erreumatoidea, kimioterapiak _____5_____ estomatitisa, malaria eta baita _____6_____ ere. Eta emaitza, esandakoa, erabat argigarria da: 68 gaixotasun horietako bakar batean ere ez da homeopatia izan plazeboa baino eraginkorragoa.

Aipatzekoa da Australiako osasun-sistemaren 2 ospitaletan homeopatia erabiltzen dela, eta mediku askok _____7_____ dizkietela tratamendu homeopatikoa beren pazienteei. Horren aurrean, homeopatia _____8_____ izan daitekeela ohartarazi du ikerketa egin duen taldeak. Izan ere, homeopatia erabiltzeak tratamendu seguru eta _____9_____ baztertea edo atzeratzea ekar dezake eta, beraz, homeopatiaren ahalmen sendagarrian sinesten duen pertsonaren osasuna _____10_____ egon daiteke.

4- Homeopatarenean

Komentatu lagunekin zure esperientzia tratamendu alternatiboetan. Esaterako:

- Joan al zara inoiz homeopata batengana? Kontatu zure esperientzia edo lagun batena.
- Medikuntza alternatiboko beste tratamendu edo produkturik probatu duzu?: kiropraktikoa, akupuntura, medikuntza naturista... Komentatu zure inpresioak
- Azaldu medikuntza tradizionalaren eta alternatiboaren alde on eta txarrak.



- Ni ez, baina lagun bat joaten da homeopatarengana
- Eta gustura al dago?
- Bai. Betiko medikuekin aspertuta zegoen eta horrekin gustura dabil.
- Ni bolada batean bizkarreko minez ibili nintzen eta kiropraktiko batengana joaten nintzen.
- Eta? Kendu al zizun mina?
- Hasieran bai, baina gero berdin nengoen. Eta oso garestia zen.

Ezagutzen al duzu Urkiolako meteoritoaren usadioa? Irakurri ondorengo testu laburra eta komentatu galderak ikaskideekin.

URKIOLAKO "METEORITOA"

Urkiolako Santutegiaren aurrean tamaina handiko harria dago kokatuta, meteorito izenez ezagutzen du herri sinesmenak harkaitz hori. Ohitura zahar baten arabera neska-laguna edo mutil-laguna lortu nahi izanez gero, ekainaren 13an, San Antonio egunean, zazpi bira eman behar dira harriaren inguruan erlojuaren orratzen noranzkoan.




Gauza jakina da ekainaren 13an harriari bueltak eman eta gero askok eta askok bikotekidea topatzen dutela... Baina zer demostratzen du horrek? Meteoritoak propietate magikoak dituela edo bikotekide bila doazenak egun berean eta leku berean elkartzen direla? Meteoritoak funtzionatu egiten du... baina horrek esan nahi du magikoa dela? Zenbaitetan homeopatiak ere funtzionatu egiten du... baina benetako eragin terapeutikoa duelako edo gaixoa berez sendatzen delako?

Laburpen egokiena aukeratu

Hauetako zein testuk laburtzen du ondoena audioaren mezua?

- ✓ Australian egin duten ikerketa baten arabera, homeopatiaren sendatzeko gaitasuna ez da da plazebo batena baino handiagoa.

Audioko lexikoa



Testua osatu

ANA GALARRAGA. Australiako Osasun Sailak agindutako ikerketa batean, homeopatiaren (**eraginkortasuna**) aztertu dute 68 (**gaixotasunetan**). Eta ondorioztatu dute bakar batean ere ez dela homeopatia plazeboa baino eraginkorragoa. Osasun Sailak (**medikuntza**) alternatibotzat du homeopatia.

Ba ikerketan halako (**tratamenduen**) eraginkortasuna aztertu dute. 107 ikerketa hartu dituzte aintzat eta guztira 68 gaitz azaltzen dira, tartean artritis erreumatoidea, kimioterapiak (**eragindako**) estomatitisa, malaria eta baita (**hiesa**) ere. Eta emaitza, esandakoa, erabat argigarria da: 68 gaixotasun horietako bakar batean ere ez da homeopatia izan plazeboa baino eraginkorragoa.

Aipatzekoa da Australiako osasun-sistemaren 2 ospitaletan homeopatia erabiltzen dela, eta mediku askok (**agintzen**) dizkietela tratamendu homeopatikoa beren pazienteei. Horren aurrean, homeopatia (**arriskutsua**) izan daitekeela ohartarazi du ikerketa egin duen taldeak. Izan ere, homeopatia erabiltzeak tratamendu seguru eta (**eraginkorrak**) baztertzeko edo atzeratzea ekar dezake eta, beraz, homeopatiaren ahalmen sendagarrian sinesten duen pertsonaren osasuna (**arrisku larrian**) egon daiteke.